

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2017ko MARTXOAREN 9an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2017ko martxoaren 9an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon NancIares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta


Bere ezin etorria azaltzen du: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ané Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/
Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:
➤ 2017ko otsailaren 9an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 9 de febrero de 2017.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.
3. 2017 ekitaldirako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko udal zergaren errolda onartzea, hala bada/ Aprobación del padrón de vehículos de tracción mecánica correspondiente al ejercicio 2017.
4. Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada./ Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Belako publizitatea eta komunikazioak.
5. 2017 urterako Udal zergen hobari eskaeren onespena, hala bada.
/Aprobación de las bonificaciones en los impuestos municipales correspondientes al ejercicio 2017.
6. Usandizaga-Ceberio familiak eginiko proposamena aztertu, hala bada./ Estudio de la propuesta realizada por la familia Usandizaga-Ceberio.
7. Martxoaren 19an arropa salmentarako postu bat jartzeko baimena eskaera, Oñatiko Txantxiku ikastolak egina./Solicitud de permiso para la colocación de un puesto de venta de ropa, el 19 de marzo, a petición de la Ikastola Txantxiku de Oñati.
8. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

9. Beste batzuk/Otros.

10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

10.1. Martxoak 8: Emakumeen Nazioarteko eguna adierazpenaren onespena/Aprobación de la declaración institucional 8 de marzo: Día internacional de las Mujeres.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.

▣ 2017 urteko otsailaren 9ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

04/2017 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 10ean, hutsik dagoen idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2017 EKITALDIRAKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA, HALA BADA

Alkate andreak 2017 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udala Zergaren Erroldaren berri ematen du, kuota gordina 21.675,41 eurotako delarik.

Bertaratuek, aipatutako errolda fiskala aztertutik, ahobatez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2017 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udala errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espediente jendaurrean ipini, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onarturiko 2017 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2017ko apirilaren 3etik ekainaren 5era bitartekoa izatea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

BELAKO PUBLIZITATEA ETA KOMUNIKAZIOAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaera, non 2017 urterako aurrekontuan Txantxangorri aldizkariaren harpidetzarekin jarraitzeko eskaera kontutan hartzea, eskatzen duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Larraulgo Udalak, 2017 urtean Txantxangorri aldizkariaren bi harpidetza egitea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

2017 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2017 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2017ko otsailaren 1etik 28 arte epea ireki zela, 8 eskaera egon direlarik.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2017 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

TITULARRA	ZERGA	ARRAZOIA	ZENBATEKOA
O.O.R	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
M.S.G	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
I.A.O	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
J.A.A.	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
A.A.J	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
I.O.D.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
L.M.T.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
K.J.S.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

SEIGARREN PUNTUA

USANDIZAGA-CEBERIO FAMILIAK EGINIKO PROPOSAMENA AZTERTU, HALA BADA

Udalkideak aho batez erabakitzen dute gaia mahai gainean uztea gaia hobetu aztertu arte.

ZAZPIGARREN PUNTUA

MARTXOAREN 19an ARROPA SALMENTARAKO POSTU BAT JARTZEKO BAIMENA ESKAERA, OÑATIKO TXANTXIKU IKASTOLAK EGINA

Ikusirik Oñatiko Txantxiku ikastolak eginiko eskaera, non martxoaren 19an arropa salmentarako postu bat jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Udaltzarkideen artean ez dagoela adostasuna erabakia hartzeko momentuan, gaia bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:

Aldeko botoak: Aneli Urbieta, Gotzon Jauregi eta Cristian Pizarro Alkate eta zinegotziak

Kontrako botoak: Ez daude

Abstentzioak: Ander Leon, Aritz Sarria eta Angel Martinez zinegotziak.

Bozketaren emaitza ikusirik, Udaltzaha honek, gehiengoaz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oñatiko Txantxiku ikastolak eginiko eskaera onestu, hau da, martxoaren 19an Larraulen arropa salmentarako postu bat jartzeko baimena ematea.


BIGARRENA: Erabaki honen berri, Oñatiko Txantxiku ikastolari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

AKETEGI	78,35
AITZOL	48,72
SANIPLAST	396,11
IZENPE	87,01
EBA ERKIZIA	672,44
ZU ETA BIOK	707,81
SETALDE	160,18



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

KIROLZER	65,30
URA	32,88
URA	1,86
AMONARRIZ ITURGINTZA	2.098,99
FONGUI	45,98
BERRI LANTEGIA	48,40
GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	44,62
EXCOMER	714,26
MANPEL	141,28
CORREOS	20,45
EDP	71,95
EDP	280,96
IBERDROLA	165,09
IBERDROLA	28,56
IBERDROLA	159,85
MOVISTAR	18,33
MOVISTAR	49,95
MOVISTAR	18,38
MOVISTAR	131,92
MOVISTAR	67,70

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU


BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.357,33** eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

9.1. TOLOSALDEA GARATZEN-i 2017 URTEARI DAGOKION EKARPENA ONESTEIA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2016ko abenduak 12ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2017 urterako Tolosaldea Garatzen-i egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 3.839,00 euro direlarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, 2016urteko ekarpena onestea, guztia, 3.839,00 euro direlarik. Lehen ekarpena burutzea onesten da, hau da, 1.919,50 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 3.839,00 eurotako gastua onestea, ordainketak 2017ko udal aurrekontuetako 422.430.00.01 partidaren kargura egingo direlarik.

9.2. ALTSASUKO ALKATEAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik, Altsasuko Alkateak eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

“Altsasun 2016ko urrian izandako gertaeren harira zenbait gazte terrorismo delituagatik inputatuak izan ziren; gure ustez prozesu horren izapideak Iruñan egin beharko lirateke, izan ere epaitzeko eskumena tokian-tokiko epaitegiei baitagokie eta ez Entzutegi Nazionalari. Hori hala izan behar lukeela adierazi dute zenbait erakundek, nabarmenki Nafarroako Legebiltzarrak, baita jurista eta Unibertsitate-irakasle ugari ere. Horren karira, zure elkartasuna eskatzera gatozkizu Nafarroako Legebiltzarrak, Altsasuko Udalak eta idazki honen sinatzaileok ordezkatzan dugun gizarte zibilak luzatu dugun deiari jarraiki.”

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Altsasuko Alkateak eginiko elkartasun eskaera onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Nafarroako Gobernu Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barne gaiak eta Justizia arloetako Sailburuari ematea.


9.3. 20. KORRIKAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik, aurten 20.korrika egin behar dela, horretarako diru-laguntza eskaera egiten dute.

Gaia aztertutrik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 20.KORRIKA-ri 50€-tako diru-laguntza ematea, antolaketaren finantziazioan laguntzeko.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HAMARGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

**10.1."MARTXOAK 8: EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA"
ADIERAZPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Eudelek ondorengo adierazpen instituzionala aurkezten du:

"Martxoak 8: Ordezkaritza orekatu baterako 8 printzipio


"Emakume gutxi daude ordezkatuta udal mailan erabakiak hartzeko guneetan, eta tokiko politikan sartzeko eta berdintasunezko parte-hartzerako arazo espezifikoetara aurre egin behar izaten diete". Hori jaso zuen IngerLingek¹ Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuaren 31. saioan aurkeztutako txostenean. Kongresua urriaren 20an egin zen, eta emakumeen tokiko eta eskualdeko parte-hartze eta ordezkaritza politikoari buruzkoa izan zen.

Erabakiak hartzeko guneetan emakume eta gizonen arteko parte-hartze orekatua edozein gizarte demokratikoren aurretiko baldintza da. Emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunean horrelaxe baieztatzen da, eta tokiko gobernuetara honakoa eskatzen zaie: beharrezko neurriak eta estrategiak hartzea, emakume eta gizonen ordezkaritza eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan.

Neurri horien artean, Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, "euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuak kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte". Aipatutako Lege horretan, profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundearen zuzendaritzako organoetan emakume eta gizonen presentzia orekatuari buruz hitz egiten da. Horretarako, zuzendaritzako organoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzen duten neurrien arabera dagozkien diru-laguntzak egokitu ahal izango dituzte, eta ezin izango diete inolako laguntzarik eman hautaketa-prozesuan edo lan-jardunean sexua dela-eta bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.

Udalgintzan, EAEko udaletako %24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren %18,82 ordezkatzen dute. 2015ean, alderdi politikoek %32,58an soilik

¹Inger Linge Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuko genero berdintasunerako bozeramailea da.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere.


Euskadin gehiengoa duten sindikatuen artean, batean soilik dago emakume bat Idazkari Nagusi; era berean, Euskadin egoitza duten erakunde finantzarioetako batean ere ez dago emakumezko lehendakariirik, eta erabakitze organo garrantzitsuetan %22,6 soilik dira emakumeak.

Elkarteetako emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko ehunekoei dagokienez, generoko ezberdintasun nabaririk izan ez arren, tradizioz rol femeninoa duten elkarteetan gehiago dira emakumeak: hezkuntza, erlijio, garapenerako lankidetzak eta gizarte-laguntzako elkarteetan. Kirol, politika, sindikatu, lanbide, arte eta herritarren esparruko elkarteetan, aldiz, nagusitasun txikiagoa dute.

Bestalde, emakumeen elkarteek, oro har, aurrekontu eta eragin-gaitasun mugatua izan ohi dute udal politiketan.

Egoera horren JAKITUN, **Larraulgo Udalak** Txosten europarreko gomendioak eta Emakumeek eta Gizonek Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere, honako honetarako konpromisoa hartzeaz gain:

1. Kontsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua eta tokiko edozein organotarako izendapenak bermatzea, betiere, sexu batek ere ez dezan izan %40tik beherako ordezkaritza (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikotan izan ezik).
2. Zenbait mekanismo ezartzea, hautatutako emakume ordezkariek eskumen-banaketa edo funtzio-esleipen estereotipatuaren edo bestelako diskriminazio- edo jazarpen-moduen eraginpean izatea eragozteko.
3. Parte-hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegiaren eta lan-metodoen eta herritarrei laguntzeko sistemen bidez.
4. Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jaso, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-hartzearen bilakaeraren jarraipena egin eta analisi horren arabera neurri zuzentzaileak ezartzeko.
5. Emakumeen parte-hartzea indartuko duten espazioak eta sareak sendotzea, hala nola, emakumeen etxeak, jabeakuntza eskolak eta/edo udal berdintasuneko kontseiluak, eta, besteak beste, emakume hautetsientzako 'Virginia Woolf Basqueskola' jabeakuntza-eskolako programan parte har dezaten ahalbidetzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

6. Udalerriko emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikoak ezartzea modu inklusiboan, batez ere, gutxiengo taldeko kideak diren emakumeei dagokienez.
7. Udalerrian gauzatzen diren parte-hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea.
8. Udaletako berdintasun sailetan eta gainerako udal sailetan neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea.

Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko xedez, alderdi politikoei eskaera egiten diegu konpromiso hauek beren gain har ditzaten eta beste eragile politiko eta sozialentzat ereduak diren neurriak har ditzaten. “

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, EUDEL-ek aurkezturiko” Martxoak 8: Emakumeen nazioarteko eguna” adierazpen instituzionala bere osotasunean onesten du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA